c) Secretas: las que se realicen por papeletas que se depositen en una urna o bolsa.

2.– Una vez iniciada la votación no podrá interrumpirse por ningún motivo.

*Artículo 56.–* Mayorías.

1.– Ya se celebre la sesión en primera o en segunda convocatoria y excepto en los casos en que la Ley o estos Estatutos exijan mayor número de votos, los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de votos emitidos.

2.– En caso de empate, el Presidente podrá repetir la votación, decidir con su voto de calidad o convocar nueva Junta.

3.– En materia disciplinaria, los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los componentes de la Junta, según lo dispuesto en el artículo 74 de estos Estatutos.

*Artículo 57.–* Adopción de acuerdos.

1.– Terminada la votación, si la hubiere, el Secretario computará los votos emitidos y anunciará su resultado, en vista del cual el Presidente proclamará el acuerdo adoptado.

2.– En caso de que exista unanimidad, el Presidente lo declarará así, proclamando el acuerdo adoptado.

*Artículo 58.–* Actas y certificaciones.

1.– De cada sesión del órgano colegial correspondiente, el Secretario del mismo extenderá con el V.º B.º de su Presidente un acta en la que se hará un resumen de lo ocurrido y transcribirá literalmente los acuerdos adoptados.

2.– La constancia en acta de los acuerdos adoptados será medio de prueba de los mismos.

3.– Las certificaciones de los acuerdos serán expedidas por el Secretario del Colegio con el V.º B.º del Presidente.

VI. TITULUA
ERREKURRITU DAITEZKEEN EGINTZAK ETA ERREKURTSO-ERREGIMENA

*59. artikulua.–* Baliozkotasuna eta betebeharra.

1.– Elkargoko organoek beren eskumenak erabiliz gauzatutako egintzak eta hartutako erabakiak baliozkoak eta bete beharrekoak izango dira hartzen diren unetik, baldin eta goragoko organoen onarpena edo baimena behar ez badute edota, indarrean dauden legeaginduek xedatutakoaren arabera, etenda ez badaude.

2.– Egintza eta erabakien baliozkotasuna eta bete beharra gorabehera, bidezko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira.

*60. artikulua.–* Ofiziozko berrazterketa.

1.– Elkargoko organoek beren kargazko edo aurkako egintzak edozein unetan deuseztatu ahal izango dituzte, deuseztapena legearen aurka ez badoa, edo berdintasun printzipioa, interes publikoa edo antolamendu juridikoa urratzen ez baditu.

2.– Halaber, Elkargoko organoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetan egon daitezkeen akats material, egitatezko edo aritmetikoak, beren kabuz edo interesdunek eskatuta.

3.– Interesdunentzat aldekoak diren egintza edo erabaki baliogabe edo deuseztatuen berrazterketa, indarrean dagoen legerian aurreikusitakora egokitu beharko da.

*61. artikulua.–* Errekurtsoak.

1.– Elkargoaren organoen egintza eta erabakien aurka, interesdunek gorabidezko errekurtsoa eta berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dute.

2.– Legeek gorabidezko errekurtsoa eta berraztertzeko errekurtsoa (azken kasu honetan interesdunak nahi badu jar dezakeela kontuan izanik) alda ditzake, beste aurkatze-prozedura batzuekin.

*62. artikulua.–* Gorabidezko errekurtsoa.

1.– Elkargoko organoen egintza eta erabakien aurka gorabidezko errekurtsoa jar daiteke, horiek eman dituen organoen goragoko organoaren aurrean.

2.– Gorabidezko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresa bada, eta ez bada espresa, epea hiru hilabetekoa izango da, eta berariazko araudia kontuan izanik isiltasun administratiboaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.

3.– Errekurtsoa, egintza eman zuen organoaren aurrean edo ebazteko eskumena duen organoaren aurrean aurkez daiteke.

4.– Epe horiek igarota errekurtsorik ez bada jarri, ebazpena erabat irmoa izango da ondorio guztietarako.

TITULO VI
ACTOS RECURRIBLES Y REGIMEN DE RECURSOS

*Artículo 59.–* Validez y ejecutividad.

1.– Los actos y acuerdos de los órganos del Colegio en materia de su competencia serán válidos e inmediatamente ejecutivos desde el momento de su adopción, siempre que no requieran aprobación o autorización superior y no fueran suspendidos conforme a lo dispuesto en preceptos legales vigentes.

2.– La validez y ejecutividad de los actos y acuerdos se entenderá sin perjuicio de los recursos legales pertinentes.

*Artículo 60.–* Revisión de oficio.

1.– Los órganos del Colegio podrán revocar en cualquier momento sus actos de gravamen o desfavorables, siempre que tal revocación no constituya dispensa o exención no permitida por las leyes, o sea contraria al principio de igualdad, al interés público o al ordenamiento jurídico.

2.– Los órganos del Colegio podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.

3.– La revisión de actos o acuerdos favorables para los interesados que sean nulos o anulables habrá de ajustarse a lo previsto en la legislación vigente.

*Artículo 61.–* Recursos.

1.– Contra los actos y acuerdos de los órganos del Colegio podrán interponerse por los interesados los recursos de alzada y el potestativo de reposición.

2.– Las leyes podrán sustituir el recurso de alzada y el recurso de reposición (respetando en este último caso su carácter potestativo para el interesado) por otros procedimientos de impugnación.

*Artículo 62.–* Recurso de alzada.

1.– Los actos y acuerdos de los órganos del Colegio podrán ser recurridos en alzada ante el órgano superior jerárquico del que los dictó.

2.– El plazo par la interposición del recurso de alzada será de un mes si el acto fuera expreso y si no lo fuera, el plazo será de tres meses y se contará a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzcan los efectos del silencia administrativo.

3.– El recurso podrá interponerse ante el órgano que dictó el acto que se impugna o ante el competente para resolverlo.

4.– Transcurridos dichos plazos sin haberse interpuesto el recurso, la resolución será firme a todos los efectos.

5.– Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igarota ez bada ebazpenik eman, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da.

*63. artikulua.*– Berraztertzeko errekurtsoa.

1.– Administrazio bidea amaitzen duten egintza eta erabakien aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, haiek eman dituen organo beraren aurrean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzietarako ordena jurisdikzionalaren aurrean aurkatu ahal izango dira.

2.– Ezin da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, aurkeztu den berraztertzeko errekurtsoa ebatzi arte edo haren ustezko ezespena gertatu arte.

3.– Berraztertzeko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresa bada, eta ez bada espresa, epea hiru hilabetekoa izango da, eta berariazko araudia kontuan izanik ustezko egintza gertatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da eskatzailearentzat edo beste edozein interesdunentzat.

4.– Epe horiek igarota, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jar daiteke, hala dagokionean, berrikusteko ezohiko errekurtsoa jartzearen kaltetan izan gabe.

5.– Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea hilabetekoa izango da.

6.– Berraztertzeko errekurtso baten ebazpenaren aurka ezin da berriro errekurtso hori jarri.

*64. artikulua.*– Jurisdikzio Errekurtsoak.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Elkargoko organoen erabakiek eta egintzek, administrazio-zuzenbidearen menpekoak badira, behin korporazio errekurtsoak agortuta, administrazio bidea amaitzen dute. Administrazio bidea, berriz, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrekoa da.

## VII. TITULUA
## EKONOMIA ERREGIMENA

*65. artikulua.*– Elkargoaren ondarea.

1.– Elkargoaren ondasun eta eskubide guztiak barne hartuta daude ondarean.

2.– Elkargoaren baliabide ekonomikoen administrazioa eta erabilera, ondoko artikuluetan adierazten diren mugekin gauzatuko dira.

*66. artikulua.*– Elkargoaren baliabide ekonomikoak.

1.– Elkargoaren ohiko baliabideak ondokoak dira:

a) Aldizkako kuotak.

b) Bisatuak, legezkotzeak, erregistroak, agirien ziurtapenak eta lan profesionalen sinadurak ematearen ondoriozko kuotak, ordainsari orientatzaileen baremo-

5.– El plazo máximo para dictar y notificar la resolución será de tres meses. Transcurrido este plazo sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado el recurso.

*Artículo 63.*– Recurso de reposición.

1.– Los actos y acuerdos que pongan fin a la vía administrativa podrán ser recurridos potestativamente en reposición ante el mismo órgano que los hubiera dictado o ser impugnados directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

2.– No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta del recurso de reposición interpuesto.

3.– El plazo para la interposición del recurso de reposición será de un mes, si el acto fuera expreso, si no lo fuera, el plazo será de tres meses y se contará, para el solicitante y otros posibles interesados, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

4.– Transcurridos dichos plazos únicamente podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, sin perjuicio, en su caso, de la procedencia del recurso extraordinario de revisión.

5.– El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del recurso será de un mes.

6.– Contra la resolución de un recurso de reposición no podrá interponerse de nuevo dicho recurso.

*Artículo 64.*– Recursos Jurisdiccionales.

Los actos y acuerdos sujetos a derecho administrativo emanados de los órganos del Colegio, una vez agotados los recursos corporativos, ponen fin a la vía administrativa previa a la jurisdicción contencioso administrativa, de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente.

## TITULO VII
## REGIMEN ECONOMICO

*Artículo 65.*– Patrimonio del Colegio.

1.– Está constituido por la totalidad de los bienes y derechos del Colegio.

2.– Las facultades de administración y disposición de los recursos económicos del Colegio se ejercerán dentro de los límites que se señalan en los artículos siguientes.

*Artículo 66.*– Recursos económicos del Colegio.

1.– Son recursos económicos ordinarios del Colegio:

a) Las cuotas periódicas.

b) Las cuotas derivadas del otorgamiento de visados, legalizaciones, registros, certificaciones sobre documentos y firmas relativas a trabajos profesionales, estable-

tik eratortzen diren ordainsarien batez bestekoaren arabera ezarrita daudelarik.

c) Elkargoaren jabetzako ondasun eta eskubideen emaitzak.

d) Elkargoak kudeatzen dituen argitalpen eta zerbitzuengatik lortzen dituen mozkinak eta eskubideak.

2.– Elkargoaren ezohiko baliabideak ondokoak dira:

a) Estatuak, Entitate Publikoek edo pertsona pribatuek elkargoari emandako diru-laguntzak, dohaintzak eta abar.

b) Batzar Nagusian erabakitzen diren ezohiko kuotak.

c) Bere ondare higigarria edo higiezina edo bere eskubideak besterenganatzearen emaitza.

d) Elkargoak beste edozein kontzepturengatik lor ditzakeen kopuruak.

*67. artikulua.–* Elkargoaren aurrekontua.

1.– Elkargoak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontu bat egingo du, aldi horretarako aurreikusten diren sarrerak eta gastuak barne hartuz.

Ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da.

2.– Gobernu Batzordeak aurrekontua hasiera batean onartuko du, eta abenduko ohiko bilkuran Batzar Nagusiaren onespenera jarriko du.

3.– Edozein arrazoirengatik ekitaldi ekonomikoa hasten denean aurrekontua behin-betiko onartuta ez badago, aurreko urtekoa erabiliko da behin-behineko izaeraz.

*68. artikulua.–* Zorrak eta ordainketak.

1.– Dekanoak eta Gerenteak, elkargoaren aurrekontuaren kontura zorrak eta ordainketak egin ditzakete, Gobernu Batzordeak ezarritako mugarekin.

2.– Ezarritako muga gainditzen duten aurrekontuaren konturako zorrak eta ordainketak egiteko, Gobernu Batzordeak dagokion gastu-proposamena onartu beharko du.

*69. artikulua.–* Informazio ekonomikoa.

1.– Elkargoak gestio ekonomikoaren kontabilitatea liburu egokien bitartez eramango du, edozein unetan aurrekontuko eragiketen berri eman ahal izateko, liburuetan aurkeztu beharreko kontu orokorrak azalduko direlarik.

2.– Elkargokideek edozein unetan elkargoaren egoera ekonomikoari buruzko informazioa eskatu eta lortzeko eskubidea izango dute, eskaera zehatza egin ondoren, baina kontabilitatea eta liburuak Ohiko Batzar Nagusia deitu eta egiten den bitartean bakarrik aztertu ahal izango dituzte.

*70. artikulua.–* Urteko kontuen ikuskapena eta onespena.

cidas según porcentaje de los honorarios que resultan del baremo de honorarios orientativos.

c) Los productos de bienes y derechos de propiedad del Colegio.

d) Los beneficios y derechos que obtuviere por publicaciones y servicios por él gestionados.

2.– Constituyen recursos extraordinarios del Colegio:

a) Las subvenciones, donativos, etc. que se concedan al Colegio por parte del Estado, de Entidades Públicas o de personas privadas.

b) Las cuotas extraordinarias que con tal carácter puedan acordarse en Junta General.

c) El producto de la enajenación de su Patrimonio Mueble o Inmueble o de sus derechos.

d) Las cantidades que por cualquier otro concepto no especificado pueda percibir el Colegio.

*Artículo 67.–* Presupuesto del Colegio.

1.– El Colegio formará para cada ejercicio económico un presupuesto en el que se consignarán los ingresos y gastos previstos para dicho período.

El ejercicio económico coincidirá con el año natural.

2.– La Junta de Gobierno del Colegio aprobará inicialmente el presupuesto y lo someterá a aprobación de la Junta General en la sesión ordinaria de diciembre.

3.– Si por cualquier causa al comenzar el ejercicio económico no estuviera aprobado definitivamente el presupuesto, regirá interinamente el correspondiente del ejercicio anterior.

*Artículo 68.–* Deudas y pagos.

1.– El Decano y el Gerente podrán contraer deudas y efectuar pagos con cargo al presupuesto del Colegio con el límite establecido por la Junta de Gobierno.

2.– Para contraer deudas y efectuar pagos con cargo a su presupuesto que sean superiores al límite establecido, la Junta de Gobierno del Colegio deberá aprobar la propuesta de gastos correspondiente.

*Artículo 69.–* Información económica.

1.– El Colegio llevará la contabilidad de la gestión económica en libros adecuados, a fin de que en todo momento pueda darse razón de las operaciones del presupuesto, deduciéndose de ellos las cuentas generales que han de rendirse.

2.– Los colegiados tendrán derecho en todo momento a pedir y obtener información sobre la marcha económica del Colegio, siempre que sea concreta cada petición, pero sólo podrán examinar la contabilidad y los libros en el período que medie entre la convocatoria y la celebración de la Junta General Ordinaria.

*Artículo 70.–* Auditoría y aprobación de las Cuentas anuales.

1.– Elkargoaren kontuak urtero batzar Nagusian onetsiko dira, ondorengo prozedurari jarraiki.

2.– Elkargoko Diruzainak urteko lehen hiruhilekoan ondoko dokumentuak idatziko ditu:

a) Memoria

b) Iragan den urteko galera eta irabazien kontua.

c) Urte horren abenduaren 31ko egoera-balantzea.

3.– Gobernu Batzordeak bere kideen artean hiru izendatuko ditu kontuak ikuskatzeko eta dagokion txostena egiteko. Era berean, hori egiteko ahalmena duen entitate bati eska diezaioke.

4.– Elkargoaren kontuen behin-betiko onespena, Batzar Nagusiak maiatzean egiten duen ohiko bileran eztabaidatu ondoren gauzatuko da.

VIII. TITULUA
DIZIPLINA ERREGIMENA

*71. artikulua.–* Eskumena.

1.– Elkargoak bere kideek elkargoko eta lanbideko obligazioak eta betebeharrak betetzen dituzten zaintzeko erantzukizuna du, baita lanbidearen izen ona eta lankideen arteko errespetua zaintzekoa ere.

2.– Erantzukizun hori betetzeko, elkargoak diziplina-ahalmena izango du, elkargokideen arau-hausteak Legeak ezarritakoaren arabera zigortuz.

3.– Elkargoaren Gobernu Batzordeko eta Industri Ingeniaritzaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkurako kideei loturiko diziplina-ahalmena, artikulu honen aurreko puntuan xedatzen dena gainditúz, Kontseilu horri egokituko zaio esklusiboki.

*72. artikulua.–* Arau-hausteak.

Arau-hausteen sailkapena, definizioa eta preskripzioa, eta bakoitzari dagozkion zigorrak, Tituludun Lanbideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legean adierazten dira.

*73. artikulua.–* Zigor-prozedura.

1.– Zigor-prozedura gauzatu ondoren jarriko dira zigor guztiak, interesdunari entzun ondoren.

2.– Espedientea Gobernu Batzordearen erabaki bidez hasiko da.

3.– Gobernu batzordeak, prozedura hastea erabakitzen duenean, bere kideen artean instruktorea izendatuko du, eta Idazkari gisa elkargoko Idazkariak jardungo du, edo Gobernu batzordeak izendatzen duen pertsonak.

Interesdunek, 8 eguneko epearen barruan, indarrean dagoen legerian ezarritako arrazoiengatik instruktorea arbuiatu ahal izango dute.

1.– La aprobación de las Cuentas del Colegio se efectuará anualmente en Junta General tras el procedimiento siguiente.

2.– El Tesorero del Colegio redactará durante el primer trimestre de cada año los documentos siguientes:

a) Memoria

b) Cuenta de pérdidas y ganancias del año transcurrido.

c) Balance de Situación a 31 de diciembre del mismo año.

3.– La Junta de Gobierno nombrará a tres de sus miembros para proceder a la auditoría de las Cuentas y evacuar el oportuno informe pudiendo también encomendar esta labor a una entidad facultada para ello.

4.– La aprobación definitiva de las Cuentas del Colegio se llevará a cabo tras el oportuno debate por la Junta General del Colegio en su reunión ordinaria del mes de mayo.

TITULO VIII
REGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 71.–* Competencia.

1.– El Colegio asume la responsabilidad de velar por el cumplimiento de las obligaciones y deberes profesionales y colegiales de sus miembros, el prestigio de la profesión y el debido respeto entre compañeros.

2.– En el ejercicio de tal responsabilidad, el Colegio ejercerá la potestad disciplinaria sancionando las infracciones de sus colegiados conforme a la Ley.

3.– La potestad disciplinaria respecto a los miembros de la Junta de Gobierno del Colegio y del Pleno del Consejo Vasco de la Ingeniería Industrial corresponderá con exclusividad, no obstante lo dispuesto en el número anterior de este artículo, a dicho Consejo.

*Artículo 72.–* Infracciones.

La clasificación de las infracciones, su definición y prescripción, y las sanciones que a ellas correspondan, están señaladas en la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 73.–* Procedimiento sancionador.

1.– Todas las sanciones requieren la previa instrucción del procedimiento sancionador, con audiencia del interesado.

2.– El expediente se iniciará por acuerdo de la Junta de Gobierno del Colegio.

3.– La Junta de Gobierno del Colegio, al acordar la iniciación del procedimiento, designará de entre sus miembros el oportuno instructor, actuando como Secretario el del Colegio, o la persona que designe la Junta de Gobierno.

Los interesados, en el plazo de 8 días, podrán formular recusación contra el instructor por los motivos establecidos en la legislación vigente.

4.– Instruktore horrek, gertakariak argitzeko probak eta jarduketak egin ondoren, bidezko bada kargu-plegua formulatuko du, eta bertan, zigorra jaso dezakeen arau-haustea ekar dezaketen gertakariak azalduko ditu.

5.– Interesdunei kargu-pleguaren berri emango zaie, eta 15 eguneko epea emango zaie erantzuteko. Erruztatuak epe horren barruan bere defentsarako bidezkotzat jotzen dituen proba guztiak aurkeztu ahal izango ditu.

6.– Kargu-plegua erantzunda edo hori egiteko epea iraganda, instruktoreak ebazpen-proposamena egingo du hurrengo 15 eguneko epearen barruan.

7.– Ebazpen-proposamena Gobernu Batzordera bidaliko da, eta honek, instruktorea bertan egon gabe, bidezko den ebazpena emango du.

8.– Prozeduraren alorrean araututa ez dagoen guztian, Tituludun Lanbideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigor-ahalmenari buruzko 2/98 legean ezarritakoa beteko da.

*74. artikulua.*– Prozeduraren ebazpena.

1.– Diziplinari loturiko gaiak aztertzen direnean, Gobernu Batzordeko egitatezko kide guztiak bertaratu behar dira, batzordeak onartzen duen ezintasunen bat dagoenean edo kide horiek arbuiagarriak direnean salbu. Ezinbesteko betebehar hori betetzen ez duena zuzendaritza-organotik kanpo geratuko da.

2.– Erabakiak, kasu guztietan, batzordekide guztien gehiengo absolutuarekin hartu beharko dira.

3.– Bozketa sekretua izango da.

IX. TITULUA
BISATUA

*75. artikulua.*– Bisatuaren edukia.

1.– Elkargokideen lan profesionalak bisatzea da Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren tresna nagusia, bere funtsezko helburua, hau da, lanbidearen antolakuntza, gauzatzeko.

2.– Bisatuaren edukiak lana izenpetzen duenaren nortasuna, titulazioa eta gaitasuna adierazten ditu. Halaber, kautotasuna, erregistroa, zaintza, agiriak behar bezala aurkeztu direla eta aplika daitekeen legeria bete dela ere egiaztatzen du, baina ez du lanaren edukia edo zuzentasun teknikoa berresten.

3.– Bisatuak ez ditu adieraziko ez ordainsariak ez eta kontratuko gainontzeko baldintzak ere. Horiek guztiak, alderdiek adostuko dituzte.

4.– Dicho instructor, una vez practicadas las pruebas y actuaciones que conduzcan al esclarecimiento de los hechos, formulará, si procede, pliego de cargos en el que expondrá los hechos imputados susceptibles de integrar infracción sancionable.

5.– El pliego de cargos se notificará a los interesados, concediéndose un plazo de 15 días para que puedan contestarlo. El inculpado podrá en dicho plazo presentar cuantas pruebas estime de interés para su defensa.

6.– Contestado el pliego de cargos o transcurrido el plazo para hacerlo, el instructor formulará propuesta de resolución en los 15 días siguientes.

7.– La propuesta de resolución se remitirá a la Junta de Gobierno del Colegio para que, sin la presencia del instructor, adopte la resolución que proceda.

8.– En todo lo no regulado en materia de procedimiento, se estará a lo establecido en la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en la Ley 2/1998 de potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 74.*– Resolución del procedimiento.

1.– La Junta de Gobierno del Colegio en materia disciplinaria actuará con asistencia de todos sus miembros de hecho que no aleguen impedimento estimado por la Junta o sean recusables. Quien no cumpla con este inexcusable deber, dejará de pertenecer al órgano rector del Colegio.

2.– Los acuerdos, en todos los casos, se adoptarán por mayoría absoluta de los componentes de hecho de la Junta.

3.– La votación será secreta.

TITULO IX
VISADO

*Artículo 75.*– Contenido del Visado.

1.– El Visado colegial de los trabajos profesionales de los colegiados es el instrumento básico de que dispone el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava para cumplir su fin esencial de ordenar la profesión.

2.– Su contenido garantiza la identidad, la titulación y la habilitación del Ingeniero que suscribe el trabajo. Asimismo acredita la autentificación, el registro, la custodia, la corrección formal de los documentos y que se ha contemplado la normativa aplicable, pero no sanciona el contenido del trabajo profesional ni su corrección técnica.

3.– El visado no comprenderá los honorarios ni las demás condiciones contractuales, cuya determinación se deja al libre acuerdo de las partes.

4.– Lanbide jarduera antolatzeko eskumena erabiliz, Elkargoak bestelako egiaztapen-bisatuak ezarri ahal izango ditu.

*76. artikulua.*– Betebeharra.

Lanbide Elkargoei buruzko 2/1974 legearen 5.q artikuluan (74/1978 eta 7/1997 Legeek aldatu zuten) agindutakoaren arabera bisatua behar duten industri ingeniaritzako proiektu edo lan tekniko edo fakultatiboak, Entitate Publiko edo pribatuen edo pertsona fisiko pribatuen onurarako egiten badira, industria, instalazioa edo zerbitzua eta, oro har, dokumentazioak barne hartzen duen gaia kokatuko den lurralde-eremuko Industri ingeniarien Elkargoak bisatuko ditu.

Arabako Elkargoko ingeniariek, dokumentazioan barne hartzen den gaia kokatuko den lurralde-eremua edozein izanik ere, dokumentazioa Elkargo honetan aurkeztuko dute, eta honek, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, bisatua emango du edo dokumentazioa dagokion elkargora bidaliko du, han bisatzeko.

Arabako Lurralde Historikoan ondorioak izango dituzten lanak egin behar dituzten beste elkargo batzuetako ingeniariek, dokumentazioa beren elkargoan aurkeztuko dute, eta honek, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, dokumentazioa Arabako Elkargora bidaliko du, han bisatzeko.

Hori guztia, Ondasun eta Zerbitzu Merkatuetan Lehiakortasuna Areagotzeko Urgentziazko Neurriei buruzko 6/2000 Errege Dekretu Legearen 39. artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

2.– Tituludun Lanbideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 30.2 artikuluan adierazitakoaren kaltetan izan gabe, bisatua izateko baldintza ez bada betetzen, dokumentazio guztia baliorik gabe geratuko da Erakunde Ofizialen aurrean aurkeztu nahi izanez gero.

*77. artikulua.*– Prozedura eta ebazpena.

1.– Gobernu Batzordeari dagokio elkargoaren bisatuak ematea edo ukatzea.

2.– Batzordeak funtzio hori eskuordetu ahal izango du. hala ere, erabakiak eskuordetzen duen organoarenak direla ulertuko da.

3.– Bisatua ematea, egintza arautua izango da.

4.– Administrazio Publikoak Elkargoari industri ingeniariaren lanbide-jarduna antolatzeko esleitzen dizkion alderdiez gain, jarduneko organoak ondokoa egiaztatuko du:

a) Sinatzailearen nortasuna eta kolegiazioa.

b) Dokumentazio hori sinatzeko legezko gaikuntza.

c) Dokumentazioa itxuraz behar bezala dagoela.

d) Dokumentazioak legezko arau-hausterik izan dezakeen.

4.– El Colegio podrá establecer otros visados de acreditación como consecuencia de su competencia en la ordenación de la profesión.

*Artículo 76.*– Obligación.

Los proyectos o trabajos técnicos o facultativos de ingeniería industrial que precisen el visado a tenor de lo preceptuado en el art. 5.q de la Ley de Colegios Profesionales 2/1974 (modificada por Ley 74/1978 y Ley 7/1997), realizados en beneficio de Entidades Públicas o privadas o personas físicas privadas, deberán ser visados por el Colegio de Ingenieros Industriales en cuyo ámbito territorial radique o vaya a radicar la industria, instalación o servicio y, en general, aquello que sea objeto de dicha documentación.

Los Ingenieros pertenecientes al Colegio de Alava, cualquiera que sea el ámbito territorial donde radique o vaya a radicar el objeto de la documentación, la presentarán en este Colegio, el cual tras hacer las comprobaciones oportunas, otorgará el visado o remitirá la documentación para su visado al Colegio correspondiente.

Los Ingenieros pertenecientes a otros Colegios que realicen trabajos que deban surtir efectos administrativos en el Territorio Histórico de Alava, presentarán la documentación en su propio Colegio, el cual tras hacer las comprobaciones oportunas, remitirá la documentación al Colegio de Alava para su visado.

Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el art. 39 del Real Decreto Ley 6/2000 de Medidas Urgentes de Intensificación de la Competencia en Mercados de Bienes y Servicios.

2.– Sin perjuicio de lo indicado en el artículo 30.2 de la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el incumplimiento del requisito del visado invalida toda documentación a los efectos de su presentación ante Organismos Oficiales.

*Artículo 77.*– Procedimiento y resolución.

1.– A la Junta de Gobierno corresponde otorgar o denegar los visados del Colegio

2.– La Junta podrá delegar tal función. A todos los efectos las decisiones se entenderán adoptadas por el órgano delegante.

3.– El otorgamiento de visado será acto reglado.

4.– Además de aquellos aspectos que la Administración Pública encomienda al Colegio con la finalidad de ordenar el ejercicio de la profesión de Ingeniero Industrial, el órgano actuante comprobará:

a) La identidad y colegiación del firmante.

b) La habilitación legal para firmar tal documentación.

c) La corrección formal de la misma.

d) Si la misma puede contener alguna infracción legal.

5.– Dokumentazioaren behar bezalako itxurari dagokionez, elkargoak arau orokorrak eman ditzake dokumentuek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezarriz.

6.– Bisatua ukatzearen aurka errekurtsoa jar daiteke Elkargoaren Gobernu Batzordearen aurrean.

*78. artikulua.*– Bisatu eskubideak.

Elkargoak dagokion kopurua likidatuko du, indarrean dauden xedapenen arabera.

X. TITULUA
ELKARGOKO LANGILEAK

*79. artikulua.*– Langileak eta aholkulariak.

1.– Elkargoko zerbitzuen funtzionamendu egokia ziurtatzeko, Gobernu Batzordeak administrariak, teknikariak edo lan-legepeko langileak kontratatu ahal izango ditu, dauden beharrizanen arabera.

2.– Langile horien lan-baldintzak Gobernu Batzordeak finkatuko ditu, dagozkien lan-araudiak kontuan izanik.

3.– Era berean, aholkularitza juridiko, fiskal eta ekonomikoan edo beste edozein gaitan espezialistak kontratatu ahal izango ditu.

*80. artikulua.*– Gerentea.

1.– Elkargoak Gerente bat izendatu ahal izango du, elkargoko gaiak kudeatu eta administratzeaz eta zuzendaritza-organoek hartutako erabakiak betearazteaz arduratzeko.

2.– Gerentea, elkargoaren plantillako langile guztien zuzeneko buru izango da, eta langileen lana agindu eta kontrolatuko du, zerbitzuen eraginkortasunik onena lortzeko.

3.– Gerentearen gainontzeko eskumenak eta betebeharrak, kontratu bidez ezarriko dira berarekin batera.

4.– Gerentea hautatzeko, Elkargoaren Gobernu Batzordeak lehiaketa baten deialdia egingo du, eta bertan oinarriak finkatuko ditu.

Izendapena Gobernu Batzordeak berretsi beharko du.

5.– Gerentea hautatzeko lehiaketan elkargokideek lehentasuna izango dute, baina izendatua izan ondoren ezin izango du lanik aurkeztu ikus-onetsia lortzeko, kargu hori betetzen duen bitartean.

AZKEN TITULUA

*81. artikulua.*– Elkargoa Desegitea.

1.– Elkargoa desegin ahal izango da, horretarako bereziki deitutako Ezohiko Batzar Nagusian elkargokideen hiru laurdenek zuzeneko bozketan hala erabakitzen dutenean.

5.– Respecto a la corrección formal, el Colegio podrá dictar normas de carácter general que establezcan los requisitos mínimos de los documentos.

6.– Contra la denegación del visado procederá el recurso ante la Junta de Gobierno del Colegio.

*Artículo 78.*– Derechos de Visado.

El Colegio liquidará la cantidad que le corresponde con arreglo a las disposiciones vigentes.

TITULO X
PERSONAL DEL COLEGIO

*Artículo 79.*– Empleados y asesores.

1.– Para asegurar el correcto funcionamiento de los servicios del Colegio, su Junta de Gobierno podrá acordar la contratación de personal técnico, administrativo o subalterno, según las necesidades.

2.– Las condiciones de trabajo de dicho personal se fijarán por la Junta de acuerdo con las normas laborales correspondientes.

3.– También podrá convenir con profesionales de la especialidad el asesoramiento jurídico, fiscal, económico y de otro tipo que estime oportuno.

*Artículo 80.*– Gerente.

1.– El Colegio podrá nombrar un Gerente encargado de la gestión y administración de los asuntos colegiales y de la ejecución de los acuerdos de sus órganos rectores.

2.– El Gerente será jefe directo de todo el personal de plantilla del Colegio, ordenando y controlando el trabajo de los empleados con el fin de conseguir la máxima eficacia de los servicios.

3.– Las restantes competencias y obligaciones de Gerente se establecerán contractualmente en cada caso con el designado.

4.– La designación de Gerente se hará por concurso convocado por la Junta de Gobierno del Colegio, que fijará las bases del mismo.

El nombramiento deberá ser refrendado por la Junta de Gobierno.

5.– En el concurso para Gerente tendrán derecho preferente los colegiados que lo soliciten, pero una vez nombrado no podrá presentar trabajos para su visado, mientras se encuentre en el desempeño de la función corporativa.

TITULO ULTIMO

*Artículo 81.*– Disolución del Colegio.

1.– El Colegio podrá disolverse cuando lo acuerden las tres cuartas partes de los colegiados por votación directa en Junta General Extraordinaria, convocada especialmente para este objeto.

2.– Batzar Nagusiaren erabakia Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio, Tituludun Lanbideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 31. artikulua betetzeko. Elkargoa artikulu horretan adierazten diren baldintza eta ezaugarrien arabera desegingo da.

3.– Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala desegiten bada, obligazio guztiak bete ondoren, soberakinik geratzen bada, elkargoarenak bezalako interes orokorrak dituzten entitateei emango zaio.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Estatutu hauek, behin-betiko onesten diren unean lortuko dute arau izaera.

2.– Elkargoari ahalmena ematen zaio estatutu hauek garatzeko beharrezkoak diren xedapen orokor guztiak emateko.

3.– Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Industri Ingeniarien Elkargo ofizialaren 1977ko abenduaren 20ko estatutuak indargabetuta geratzen dira.

2.– El acuerdo de la Junta General se trasladará al Gobierno Vasco para el cumplimiento del artículo 31 de la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La disolución del Colegio se hará según las condiciones y características que recoge el citado artículo.

3.– En caso de disolución del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Alava, una vez satisfechas todas las obligaciones, se hará entrega del sobrante, si existiere, a entidades que persigan fines de interés general análogos a los del Colegio.

DISPOSICIONES FINALES

1.– Los presentes Estatutos empezarán a regir desde el mismo momento en que recaiga sobre los mismos la aprobación definitiva.

2.– Queda facultado el Colegio para dictar cuantas disposiciones generales resulten necesarias para el desarrollo de los presentes Estatutos.

3.– Quedan derogados los Estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Alava, Gipuzkoa y Navarra de 20 de diciembre de 1977.

# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-3988

IRAGARKIA, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren espedienteak kudeatzeko zerbitzua helburutzat duen zerbitzu-kontratu administratiboa esleitu dela jakitera emateko dena. (KBN C02/26/2001 esp.).

1.– Entitate esleitzailea.

a) Erakundea: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kontratazio Batzorde Nagusia (Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza).

c) Espediente zenbakia: C02/26/2001.

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-3988

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato administrativo de servicios que tiene por objeto «Gestión de expedientes del Servicio Vasco de la Vivienda, Etxebide» (Expte. C.C.C. n.º C02/26/2001».

1.– Entidad adjudicadora.

a) Organismo: Dirección de Planificación y Gestión Financiera del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

b) Dependencia que tramita el expediente: Comisión Central de Contratación (Dirección de Patrimonio y Contratación).

c) Número de expediente: C02/26/2001.